

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Suspertze ekonomikoa, enplegua, kohesio soziala eta autogobernua, Nafarroako Gobernuak 2016rako dituen erronkak

Urte amaierako mezuan, Barkos Lehendakariak adierazi du bere Gobernuaren sendotasun eta egonkortasunari esker, aldaketa "eraginkor, bare eta iraunkorra" errazten ari dela

Martes, 29 de diciembre de 2015

Suspertze ekonomikoa, enplegua, kohesio soziala, pertsona ahulenekiko elkartasuna, autogobernuaren babesa eta bizikidetzeta. Horiek dira Nafarroako Gobernuak 2016rako dituen erronka nagusiak, Uxue Barkos Lehendakariak urte amaierako [mezu](#)an adierazi duenez.

Lehendakariaren aburuz, iragan maiatzeko


hauteskunde ondoan, "anitza eta herritar guztiei zabalduko" Gobernuaren eredu berri bat ezarri da, eta azpimarratu du Foru Gobernuaren sendotasuna nahiz egonkortasuna "burutzen ari garen aldaketa eraginkor, bare eta iraunkorra" bermatzeko elementuak direla. Nafarroako gizarteari ere eskerrak eman dizkio Gobernu aldaketa normaltasun osoz hartu izanagatik.

Uxue Barkos estatuko politikaren gaurkotasunaz aritu da eta, testuinguru horretan, Nafarroa eredu modura jarri du; izan ere, Nafarroan, lau alderdi "programa-akordio bat negoziatzeko eta adosteko gai izan dira eta, hari esker, politika sozialagoak, integratzaileagoak garatu ditzakegu, finean nafar guztiei bizi-kalitate handiagoa ematea bilatzen dutenak".

Aurrerago, Lehendakariak Gobernuak bost hilabete hauetan egindako lanaz hitz egin du: egindako zerga-erreforma nabarmendu du, "eta erreforma horrek progresibitatean eta berdintasunean aurrera egiten laguntzen digu"; aurrekontuen proiektua ere azpimarratu du, "hiru urtetan kontu publikorik izan ez ondoren".

2016rako zereginak

2016rako erronkak ere aipatu ditu. Hala, lehenik eta behin, suspertze ekonomikoa dago. Helburu hori lortzeko, industrian ikerketa sustatzeko beharra azpimarratu du eta sektore estrategikoetan aurrera egiten jarraitzea (energia berriagarriak, nekazaritzako elikagaiak edo



Lehendakariaren irudia, mezuen grabaketan.

biomedikuntza). Kalitatezko enplegua sortu eta finkatzearen alde egin du ere, bai eta pertsona ahulenen beharrei erantzutearen alde ere.

"Ziur nago Nafarroak suspertze ekonomikoaren bidetik joko duela –esan du– baina, horretarako, beharrezkoa da denok elkarrekin aurrera egitea, inor atzean utzi gabe. Horrenbestez, gizarte kohesionatuagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa lortuko dugu, gainera".

Autogobernuaren babes "irmoa" da Lehendakariak 2016rako duen beste erronketako bat; urte horretan hitzarmen ekonomikoa eguneratu behar da, "gero eta autogobernu handiago, orduan eta oparotasun eta ongizate handiagoa izango dugun uste osoarekin; baina horrek erantzukizun handiagoa ere eskatzen du".

Azkenik, bizikidetzan sakontzearen aldeko apustua egin du. Alde horretatik, elkarrizketa, akordiorako prestutasuna agertu du berriz eta iritzi desberdinekiko errespetua; horrekin batera, "lehia antzuak alde batera uzteko" eskatu du, "eta ahalik eta elkargune zabalenak bilatzea gure gizarterako funtsezko zutabeak diren gaietan".